

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



Hostoak erortzen, paisaia marroi...

Trans mision



...jendea etortzen, errutinen morroi.
Izan zitekeen, edozein lekutan,
lautada baten edo mendiaren puntan.
Bi benetako lagun elkar topatuz,
zergatik ez, demagun, trago bat hartuz.
Futbola, Estelada... ez da elkarriketa,
holakoa da beraien hizketa:

-Asier, Asier... kurtso berria hasi da, ez zara enteratu?

-Ostrak binagretan Uxue! Egia da! Eta bertso eskola?

-Ni aurten bigarren umearekin ez dakit nola ibiliko naizen... baina saiatuko naiz bisitaren bat egiten. Ahaleginduko naiz aitonari enkasketatzen umeak.

-Ze ahalegindu!! Agindu!! Umeak ez dira soilik zureak... Gainera nagusiak badu bertso eskolarako adina... apunta ezazu!

-Badago? Non informa naiteke?

-Bertsozale.eus/araba-n, Bertsozale elkarte-ko bulegoan, telefonoz...

-Eta zuek ze asmo?

-Julen eta Unai animatu dira eta aurten Oihane ere badator... Elkartzen hasi beharko dugu... Kurtso gogorra daukagu aurretik eta!

-Bai, Kuadrillartekoa, Bertxoko, Eskolartekoa, Bertsoa Bizi Gazte...

-Puff... pilak jarri beharko ditugu!

-Lasai! Ni topera nabil!

-Iazko egun berean?

-Bai, jakina!

-Bertxoratuko gara!

KOPLA

4 urtez behingo gure
extasian gaude
ta erreztatzen hasi
Vaticanon pare,
geratu ez gaitezen
sarrerarik gabe.



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



KURTSOA ONDO BUKATU GENUEN, BAINA ...

Trans mission

Ikasturtea amaitu baino lehen Bertsoa Bizi Gazte eguna eta gaztetxoan eskolarteko topaketak ospatu genituen. Uda eta irailean zehar sariak aprobetxatzeko aukera eduki dute gure gazteek. Oiongo gazteak Otxandion egon ziren, Murgiakoak Eulaten, Armentiako talde bat Zarautzen eta bestea Garaionen. Azkenik eskolartekoko partaideek egun pasa eder bat igarotzeko aukera eduki zuten Sobronen.



... ONDO HASI DUGU ERE

Ikasturte honetan 6 eskualde, 9 herri, 21 talde, 11 irakasle eta 120 ikasle dira aurtengo hasiera bateko numeroak.

AIARALDEKO BERTSO ESKOLA

Arespalditza eta Amurrio

ZUIAKO BERTSO ESKOLA

Murgia

URKABUSTAIZKO BERTSO ESKOLA

Izarra

LEGUTIOKO BERTSO ESKOLA

Legutio

ARAMAIOKO BERTSO ESKOLA

Aramaio

ARABAR ERRIOXAKO BERTSO ESKOLA

Oion

LAUTADAKO BERTSO ESKOLA

Agurain eta Zalduondo

MENDIALDEKO BERTSO ESKOLA

Kanpezu

GASTEIZKO BERTSO ESKOLA

Gasteiz

Gazte talde berriak sortuko direla dirudi bertso-eskolen osasun onaren seinale. Zure herria zerrendatik kanpo badago eta bertso eskola bat martxan jartzeko gogoz bazabiltza, jarri gurekin harremanetan eta saiatuko gara bideratzen.

Harremanetarako:

Arabako Bertsozale Elkarte
AMAIA ZENTROA. Benito Pérez Galdos z/g
01002 GASTEIZ

tel: 945 010505 - 688616531

E-posta: araba@bertsozale.eus

www.bertsozale.eus/araba/bertso-eskola



...Bastida, Amurrio... BECen aulki-eskasia

Txustapena

Bai, bai, mugi zaitezte aulki gutxi omen daude. Txapelketa Nagusiko saioetara joan nahi baduzue...ERNE! Bi finalurreko jokatuko dira Araban. Bastidan urriaren 28an eta azaroaren 19an Amurrioren. Eta, noski, finalaz ezin ahaztu: abenduaren 17ean izango da BECeko festa itzela. Agendak betetzen has zaitezke, beraz.

Arabar dezente arituko dira Txapelketa Nagusian: bertsolariak, gai jartzai-leak eta epaileak, transkripzio egileak, inkestazai-leak, idazkaria, eta nola ez bertso eskoletako kide, lagun eta enmarronatutako guztiak antolakuntzan. Irailaren 30ean, Seguran Oier Suarezek aurkeztuko du saioa. Oihane Pereak Zallan kantatuko du urriaren 7an. Urriaren 8an Asier Otamendik kantatuko du eta Marta Ugartek aurkeztuko du. Azaroaren 19an Aintzane Irazustak aurkeztuko du. Ekaitz Elorriaga, Aitor Jimenez eta Mikel Fernandez de Arroiabe epaile lanetan arituko dira fase ezberdinetan, Ainhoa Aizpuru epaile laguntzaile. Izar Mendiguren transkripzio lanetan. Izar eta Jon Ruiz de Pinedo ikerketa soziologikoaren inkestazai-le. Esti Zengoitabengoa idazkari lanetan Bastida eta Amurrioko saioetan.

Saio guzti hauetarako sarrerak erosteko, errazena bertsosarrerak.eus web gunean sartzea duzue.

Hala ere, finalerako sarrerak salgai egongo dira saio guztietan eta urriaren 2tik aurrera leku hauetan: Gasteizen (Amaia Zentroan), Agurainen (Herriko Tabernan), Aramaion (Eki tabernan),

Laudion (Arrañope tabernan) eta Amurrioren (Txokogorri tabernan). Bukatu egingo dira, seguru, mugi!

Bestalde, informazio guztia bertsozale.eus web gunean duzue.

Gozatu!



BERTXOKO AVEFENIX!

Txustapena

2002an Arabako Bertsozale Elkartek eta Gasteizko Bagare Kultur Elkartek bertsolari gazteak plazaratzeko Bertsotan BAGARE Sariketa martxan ipini zuten. Bost urtetan zehar sariketaren finalaren jokalekua Gasteizko Bagare elkarte ezaguna izan zen. 2007an Gasteizko Bagare elkarte desagertu ondoren Bagare Sariketa BERTXOKO Sariketa bihurtu zen, Hala Bedi irrati libreko bertsolaritzaren inguruko irratsaioaren izen berbera. Beraz, Arabako Bertsozale Elkarte eta Hala Bedi Irratiaren arteko lankidetzari esker martxan ipini zen 2007an. 2013.urtera arte urtero jokatu zen Bertxoko sariketa.

Hiru urteko eten baten ondoren, 2017an, berriro dator Bertxoko sariketa, helburu berberarekin; bertsolari gazteak plazaratzeko asmoz. Azaroko 5 ostiraletan jokatuko da, Arabako 4 herritan eta Gasteizen. Saio bakoitzean bi bikote arituko dira, merienda pikoteo edo afari baten ostean, elkarte edo taberna batean, zutik kantatuko dute bertsolariak.

8 bertsolari gaztek parte hartuko dute, baina bikoteka, aritua den beste bertsolari batekin, **8 bertsolari gazte horiek bilatu dute beren bikotea**, beraz, 16 bertsolari.

Entzuleek epaituko dituzte bertsolari gazteak eta entzuleen arabera saio bakoitzean hoberen aritu den gazteak kantatuko du finalean, beraz, 4 bertsolari gazte arituko dira finalean, bikoterik gabe.

Aitor Najera (Zalduondo) - Jon Ruiz de Pinedo
Aitor Ugarte (Aramaio) - Xabi Igoa
Aroa Arrizubieta (Gasteiz) - Oier Arbina
Markel Yoller (Zalduondo) - Iker Pastor
Xabier Antia (Gasteiz) - Iñaki Viñaspre
Unai Anda (Murgia) - Paula Amilburu
Martin Abarrategi (Aramaio) - Peru Abarrategi
Asier Rubio (Luiaondo) - Manex Agirre

AGENDA!

BERTSO-KANTAERA ESKOLA

Prosodia landuko da: ahotsa, jarrera,
etena, tonua, tempoak, melodia...

Prosodiak hitzaren adierazkortasunean duen
eraginaz kontzientzia hartu eta praktikatu.
Saio guztiak praktikoak izango dira.

Gasteizko Amaia Zentroan, ostiraletan,
18:00-19:30, egun hauetan:
Urriak 20, 27
Azaroak 3, 10, 17, 24
Abenduak 1, 8, 15

Irakasleak:
Ainhoa Aizpurua (ikerlaria eta bertso epailea)
eta Iñaki Viñaspre (bertsolaria)

Sarrera dohainik
Izena eman: araba.sustapena@bertsozale.eus



www.bertsozale.eus/araba

Antolatzailea:



ZERNAHI

BI GAUZA BATERA EGITEN DIRENEAN...



Editoriala

Txikitatik esan digute, bi gauza egin beharrean, hobe dela gauza bakarra egin, baina egindako hori ondo egitea.

Beti izan dira ikasle finak eta kasurik egiten ez dutenak, bueno edota kasurik egin ez arren bixiagoak direnak.

Ez da arraza oso zabaldua azken hau, baina gurean bada oraindik baten bat, eta gure kamaralari profesional, adi eta diskretoek bat topatu zuten aurreko bertso saio batean.

Dokumentu grafikoan ikusten den bezala, arraza honetako animaliek bi gauza aldi berean egiteko "albidade" berezia dute.

Hala ere, badaude arrazarekiko kritiko jarduten direnak, eta aintzakotzat harturik, audiorik ezean ezin jakin bertso ona edo txarra bota zuen. Eta kartera ikusi ezean, tratua nola irten zen ere ezin jakin.

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2017

BASTIDA

Urriak 28, 17:00, Udal kiroldegia

AMURRIO

Azaroak 19, 17:00, Bañueta kiroldegia

...eta hamaika saio gehiago Araban barrena, bertso gosez ez gaitezen hil, tartean....

BERTXOKO IS BACK

Saio guztiak: www.bertsozale.eus/araba